



19. ZENbakia
ZER jan hURa izan!

1. AZALAREKIN JOLASEAN

Aupa lagunok! Hemen daukagu jada, 19. alearen irakurketa gida! Poliki-poliki irakurzaletzen ari gara, ezta? Beno, irakurzaletzen ez bazabiltzate ere, irakurketaz gozatzen ariko zarete! Seguru baietz!

Has zaitez bada, zure haurrarekin azala aztertzen!:

Irakurri haurrari honakoa ahoz goran:

–Azal honetan, kolorez beteriko mundua ageri zaigu, ezta? Kolore berdea da nagusi bertan. Baina, kolore horiez gain, gure laguntxoak ere, bertan dihardute; kamuflaturik, mozorroturik. Zerez, baina? (utzi behar duen denbora azala aztertzeko eta ea asmatzen dituen barazkien izenak).

Ondoren honako beste hau galdetu:

–“Zer jan hura izan” Zer uste duzu esan nahi digutela gure lagunek esaldi honekin?

Zer da azal honetatik gehien gustuko duzun janaria? (Esaiozu, zuk gehien gustuko duzuna zer den, adibidez arraina eta ondoren, honakoa galdetu): Beraz, gustukoen dudana arraina denez, arraina izango naizela esan nahi al du horrek?

Hausnartu zure txikitxoaz esaldiaren inguruan eta ondoren azaldu, janariak gure osasunean duten eragina, hau edo bestea asko jateak zertan lagundu edo zertan kaltetu dezakeen.

2. EGUNERO JANTZITA DARAMAGUN ILUSIOA

Ez bakarrik irakurri, haurrarekin irakurri. Erabili itzazu irudiak, haurra irakurketara erakartzeko. Honako galdera hauek egin ditzakezu:

-Begira zer agertzen den!

-Horiz dauden zatiak zer irudikatzen dutela esango zenuke?

-...

3. IRRIA ALDIZKARIA

Orain arteko aldizkarietan bezala, oraingoan ere aurkibide bat jarri digute eskura, non aldizkariaren nondik-norakoak argi ikus daitezkeen. Irakurri haurrari zer aurkitu daitekeen aldizkarian eta ondoren galde iezaiozu: “Ezer berririk bai?”.

Jarraian ondoko laukitxo informatiboaren izenburua irakurri eta galde iezaiozu:

–Zer esan nahi ote du horrekin?

Amaitzeko, esaiozu haurrari pentsatu duen hori marrazki batez irudikatzeko. ANIMATU ZU ERE MARRAZKIA EGITERA.



19. ZENBakia
ZER jan HURa izan!

4. **PIRRITX ETA PORROTX ETA MARIMOTOTX**

Atal honetan, lehenik eta behin, galdetu haurrari ea nola irakurri nahi duen komikia: bakarrik, zurekin batera, zuk irakurriz ... Haurrak aukeratu duena modura irakurri eta amaitzean honako galdera hauek planteatu:

- Zertan aritu dira gure lagunak?
- Zeintzuk neska eta mutiko berrirekin agertu zaizkigu oraingoan?
- Zein herrialdeetakoak dira?
- Zein janari duzu nahiago zuk? patata, arroza ala arto burua?
- Azkenean, zer ideia proposatzen dute gure lagunak?

5. **ZENBATAK**

Atal honetan eskaintzen diren irudiak esanguratsuak direla aintzat hartuz, lehenengo gerturatze bat gauzatzeko, irudiei erreparatuko diegu eta honako galdera hauek egin ditzakegu:

- Zer ikus daiteke irudietan?
 - Zure ustez zer gertatzen zaio Marizortziri?
- Jarraian, lagundu haurrari komikia irakurtzen eta, amaitzean, egin honako galdera hauek:
- Zuk egin al duzu aldaketarik hamaiketakoarekin?
 - Zu ere ados zaude Marizortzirekin?

6. **LAGUN**

Komikia elkarrekin irakurtzea aholkatzen dugu, haurra bere irakurketan orientatzea oso garrantzitsua delako. Jarraian, irakurketan agertzen diren leku ezberdinak interneten agertzen diren bideoetan erakustea proposatzen dugu, berak irakurri duen hori errealitatearekin modu zuzenago batean lotu dezan.

7. **LARGABISTA**

Oraingo honetan ere irakurketa konpartitu bat egitea aholkatzen dugu. Baina, haurrak bakarrik irakurtzea nahi izanez gero, utzi.

Irakurketa egin ondoren, benetako armarrak bat ikustea izango litzateke interesgarria eta ahal izanez gero Gipuzkoakoa. Izan ere, modu honetan, haurrak irakurtzen duen hori modu esanguratsuan barneratzeko bidea izan daiteke.

8. **LANDABISTA**

Landabistak eskaintzen duen informazioa helarazi eta haurrak jasotzeko honako jolas hau egitea proposatzen dugu:

- Aldizkarian agertzen den zuhaitza marraztu orri handi batean, moztu eta zati bakoitzaren atzean ezaugarri ezberdinak idatzi eta jarraian ezkutatu.
- Jarraian haurrari azaldu: 15 minututan ezaugarri ezberdinak aurkitu eta zuhaitza osatu behar duzu. Osatzen baduzu sari bat izango duzu.
- Amaieran sari bezala gustatzen zaion zerbait egitea izango da.



19. ZENbakia
ZER jan HURa izan!

9. **MARTIN BERTSO**

Jatordu baten ondoren irakurtzea proposatzen dugu. Galdetu elkarrekin irakurri nahi al duen. Konpartitzen baduzue honako hau egitea proposatzen dugu:

- Pupu eta Loreren negarrak haurrarekin batera imitatzea. Antzeztu zertxobait.
- Galdetu iezaiozu ea asko jan al duen gaur.
- Asko jatean zer gertatzen den galdetu.
- ...

10. **POSTERRA**

Posterraren atalak, zure haurraren sormena lantzeko balioko dizu. Ikusi dezakezun lez, atal honetan ez daukagu ezer irakurtzeko, hala ere, irakurketarekin batera jolasa, marrazketa, irudimena... denak balio du! Irakurketak ez du mugarik! Azken batean, askatasun horretan izango gara irakurleok guztiz libre! Libre, nahi duguna, behar duguna, eta SENTITZEN duguna egiteko!

Beraz, posterraren atalarekin **sentitzen duzun horretatik abiatzea proposatzen dizut**. Hau da, momentuan egitea nahi duzun hori egitea, alegia. Ziur nago ideia anitz interesgarri eta dibertigarriak bururatzen zaizkizula.

11. **FILOSOFO TXIKIAK**

Gure lagun filosofoen atalak, hitzak berak dioen lez, filosofatzen erakutsiko digu oraingoan ere. Horretarako, lehenik eta behin, haurrari proposatuko diogu, hemendik aurrera, filosofo txikien atala irakurtzeko, eremu magiko bat aukeratu beharko dugula. Eremu horri, **“txoko magikoa”** deituko diogu eta zuek nahi duzuen lekua izango da: etxeko gela bat, ganbara, etxeko ortua, etxe ondoko zelaia... nahi duzuen!

Behin txoko magikoa aukeraturik, zure haurrari filosofo txikien atala nola irakurri nahi duen galdetuko diozu eta irakurketa modua aukeratu ondoren, honakoa egin dezakezu haurrarekin.

Lehenengo komikia irakurri. Irakurri ondoren, hasierako galderari erantzunak ematen saiatu. Erantzun nahi horretan, bion arteko elkarriketa, hausnarketa prozesu bat garatu beharko duzue. Horretarako, bururatzen zaizkizun galdera irekiak bota. Hala ere, utzi haurrari protagonismoa; nahi duen bidetik eraman dezala hausnarketaren noranzkoa.

Behin hausnarketarekin amaiturik, verde koloreko irudi handiarekin egingo duzue topo. Bertan ageri den marrazkiaz baliatuko zara haurra irakurtzera animatzeko:

–*Zer da urtxintxa horiak dioena? Eta arrosak?* Behin, haurrak beheko galdera irakurririk honako beste galdea hauek egin:

–*Zer uste duzu? Baietz ala ezetz? Zergatik?*

–*Zer jaten dute gure urtxintxek? Nork jango du gehiago: urtxintxa horiak ala arrosak? Zergatik?*



19. ZENbakia
ZER jan HURa izan!

12. **MARIKALAMBRE**

Zuri dagokizu gure lagun Marikalanbreren atala irakurtzea! Hala ere, irakurriko duzun horrek, berezitasun txiki bat izango du:

Ikus dezakezunez, komikian Marikalanbre eta bere amona ageri dira, hala ere, narratzailea ere bertan da. Berak kontatzen digu komikia.

Egin beharko duzun bakarra hiru hauei (narratzailea, amona eta Marikalanbreri) ahots tonu ezberdinak eta oso puztuak (exageratuak) egokitzea izango da.

Haurraren atentzioa bereganatzeko estrategia egokia izan daitekeela uste dugu. Beraz, aukeratu amonarentzat ahots bat, Marikalanbrerentzat beste bat, eta narratzailearentzat beste bat!

Ea zer gertatzen den!

13. **ANE PIRATA ETA PATAKON**

-Bildu zaitezte bi pertsona baino gehiagorekin leku goxo batean.

-Ipuina irakurri aurretik ezkutatu zuen etxeko lekuren baten.

-Jarraian, marraztu ezazu orri batean zuk jarritako altxorra aurkitzeko, zuen etxearen mapa bat.

-Ondoren, borobilean jarri eta ipuina kontatu, misterio kutsu batekin!

-Amaitzean, esan aurrean duten mapa hori Bonetxeak hil aurretik jarri zuen beste altxor bat aurkitzeko dela.

-Mapa eskuetan dutela, has daitezela altxorra aurkitzen.

-ANIMATU! OSO ONDO PASATUKO DUZUE.

14. **PUPU ETA LORE**

Gure haurtxoen atala irakurtzeko, musika jarriko duzue etxean. Musikak, gorputz eta bihotzak berotuko dizkigu, irakurketa sentitzeko eta gehiago bizitzeko erabiliko dugu.

Beraz, aukeratu irakurketa honi egokitu ahal zaion musika erritmo bat (alaia baldin bada hobeto) eta irakurri bion artean komikia. Irakurketa eserita, zutik, dantzan... Nahi duzuen moduan egin dezakezue. Ez ahaztu, irakurtzea jolastea ere, badela.

15. **MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE (aspanobi elkarte)**

Atal honen irakurketa egin aurretik, haurrari elkarte honen berri emango diozu. Horretarako, nahi dituzun baliabideak erabiliko dituzu: internet, argazkiak, aldizkariren bat, bideoak ... hala ere, konturatuko zara, nola komikiaren bigarren orrian, elkarte honen informazio zehatz eta argia ageri zaizula! Beraz, erabili.

Informazio hori, haurra zure altzoan hartuz, bion artean irakurri dezakezue. Gogoratu, haurraren zalantza guztiak argitzeaz, ez utzi zalantza dantzan.

Behin elkarte honen berri izanik, galdetu haurrari ohean etzan nahi duen, bitartean zuk irakurriko diozula gure laguntxoaren istorioa. Ez ahaztu, haurraren deskantsua ezinbestekoa dela. Beraien osasuna zaintzeko atsedean hartzea oinarritzkoa izango dela. Beraz, egon dadila lasai ohean, zuk irakurtzen diozun bitartean.

Oraingo honetan, ez diogu haurrari galderarik egingo!



19. ZENbakia

ZER jan HuRa izan!

16. **AZKEN ORRIA**

Azken orrian, hainbat irudi eta irakurtzeko letra ageri zaizkigu. Zure egin beharra, irudi eta marrazki artean ageri diren letra horiek haurrari irakurtzea izango da.

Hala ere, ohartuko zinen liburu ezberdinak ageri direla bertan, ezta? Bada, liburu horietatik gehien gustuko duena aukeratzeko eskatu haurrari. Gehien gustuko duen hori zergatik aukeratu duen galdetu ondoren.

Jarraian, internet baliatuz, aurkitu liburu horren bideo interesgarriren bat. Eta azkenik, ikusi bideoa bion artean.